

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Oposaketak eta lehiaketak

EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA

1565

EBAZPENA, 2016ko martxoaren 17koa, Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatearena, ikertzaile doktore iraunkorren plazak betetzeko lehiaketarako deia egiteko dena.

Errektorego honek, emanda dauzkan ahalmenez baliatuta, erabaki honetako I. eranskinean aipatzen diren ikertzaile doktore iraunkorren plaza hutsak betetzeko lehiaketarako deia egitea erabaki du, jarraian aipatutako oinarrien arabera.

DEIALDIAREN OINARRIAK

1.– Arau orokorrak.

1.1.– Lehiaketa honetan arau hauek bete beharko dira: 30/1992 Legea, azaroaren 26koa, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearena (urtarrilaren 13ko 4/1999 Legearen bidez aldatua); 6/2001 Lege Organikoa, abenduaren 21ekoa, Unibertsitateei buruzkoa (apirilaren 12ko 4/2007 Lege Organikoaren bidez neurri batean aldatua); Euskal Herriko Unibertsitateko Estatutuak, otsailaren 15eko 17/2011 Dekretuaren bidez onartuak (2011ko otsailaren 24ko EHAA); 3/2004 Legea, otsailaren 25ekoa, Euskal Unibertsitate Sistemarena (martxoaren 12ko EHAA); 40/2008 Dekretua, martxoaren 4koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailarena, UPV/EHUko irakasleen eta ikertzaileen araubideari buruzkoa (martxoaren 18ko EHAA); ikertzaile iraunkorrak hautatu eta kontratatzeko prozeduraren arautegia, Gobernu Kontseiluak 2008ko uztailaren 16ko bileran onartu zuena eta Irakasleen arloko errektoreordearen 2008ko urriaren 20ko erabakiaren bidez argitaratu zena (azaroaren 26ko EHAA); deialdi honetako oinarriak; aplikagarriak diren arau orokorrak; eta, aurreikusi ez diren alderdietarako, Herri Administrazioan sartzeko araubide orokorra arautzen duten estatuko xedapenak.

1.2.– Jakintza arlo berekoak diren eta ezaugarri berberak dituzten plazak deialdi desberdinetan atera ahal izango dira lehiaketara (1994ko abenduaren 2ko agindua, abenduaren 3ko BOE).

2.– Hautagaiek bete beharreko baldintzak.

2.1.– Hautagaiek, lehiaketa honetan onartuak izateko, honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

- a) Hamasei urte beteta edukitzea eta legez ezarritako nahitaezko erretiro adina ez izatea.
- b) Kasuan kasuko irakasleen kategoriako lanari dagozkion eginkizunak betetzea eragozten duen gaixotasunik eta eragozpen fisiko edo psikikorik ez izatea.
- c) Diziplina espedientearen bidez estatuko administrazio orokorreko zerbitzutik edo autonomia, erakunde eta herrietako administrazioetatik aldendua ez izatea, eta eginkizun publikoak betetzeko ezgaiturik ez egotea. Espainiar nazionalitatea ez dutenek ez dute izan beharko kasuan kasuko estatuko funtzio publikoan jardutea eragozten dien diziplina zehapenik edo kondena penalik.
- d) Ondoren adierazten den zenbatekoa ordaintzea plaza bakoitzerako: 20,34 euro.

Eskubideak ordaintzeko, dagokion diru sarrera edo transferentzia egin beharko da kontu korrante honetara (lehiakidearen izen-abizenak eta plazaren hurrenkera zenbakia zehaztuta):

Kutxabank

UPV/EHUko Irakasleen arloko Errektoreordetza Irakasleen lehiaketetako tasak.

Kontu korrontearen zenbakia: 2095 0292 94 3239002233

Ordainketa posta edo telegrafia igorpenaren bidez egiten duten lehiakideek Lehiaketen Atalera bidali behar dute (1.397 posta kutxa, 48080 Bilbao).

Eskaerak aurkezteko epean zenbateko hori osorik ordaindu ez duten lehiakide guztiak lehiaketatik kanpo geratuko dira, eta ez da beste eperik zabalduko tasok ordaintzeko edo falta den kopurua osatzeko.

Nolanahi ere, azterketa eskubideak ordaindu arren, ezinbestekoa da lehiaketan parte hartzeko eskaera ere aurkeztea errektoreari, behar bezala beteta eta epearen barruan.

2.2.– Betebehar akademiko espezifikoak:

a) Doktore titulua izatea.

Beste estatu batzuek igorritako tituluak izanez gero, homologatuta egon behar dute azaroaren 21eko 967/2014ko Errege Dekretuan jasotako aurreikuspenen arabera edo atzerriko goi mailako hezkuntza tituluak homologatzeko prozeduraren bidez, zeina Gobernu Kontseiluak onartu baitzuen 2005eko abenduaren 22ko bileran eta 2006ko urtarrilaren 23ko Erabakiaren bidez argitaratu baitzen (otsailaren 21eko EHAA).

b) Irakaskuntza eta ikerketako jardueren (batez ere doktorego osteko ikerketa lanena) aldeko txostena edukitzea, ikertzailea doktore gisa kontratatua izateko, Kalitatea Ebaluatzeko Euskal Agentziak, Kalitatea Ebaluatu eta Egiaztatze Estatu Agentziak edo Euskal Autonomia Erkidegoko araudiak onartutako antzeko erakunderen batek emandakoa.

c) Doktoregoa egin ondoren irakaskuntzan edo/eta ikerketan gutxienez hiru urteko esperientzia egiaztatzea.

d) Hizkuntza eskakizun elebiduna daukaten plazetan, euskaraz irakasteko gaitasuna egiaztatzea, bide hauetakoren bat erabiliz:

d.1.– Euskararen jakite maila egiaztatzeko probak egitea. Proba horiek soilik egingo dira lehiakideren batek lehiaketan parte hartzeko eskaera orrian hala eskatu badu eta onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda argitaratu baino lehen egingo dira.

d.2.– Euskarako errektoreordeak 2002ko ekainaren 5ean emandako Erabakian (uztailaren 11ko EHAA) xedatutakoa betetzea, edo, bestela, Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko C1 mailaren pareko tituluak (2010ko azaroaren 15eko EHAA) aurkeztea.

Kasu honetan, bai titulua bai baliozkotzea lehiaketan parte hartzeko eskaerak aurkezteko epea bukatu baino lehen lortutakoak izan beharko dira.

e) Ofiziala ez den hizkuntza bat egiaztatzea eskatzen duen plaza bat bada, kasuan kasuko hizkuntzan eskolak emateko gaitasuna eduki beharko da egiaztatuta, modu honetara:

e.1.– Hizkuntza ez-ofizialaren jakite maila egiaztatzeko probak eginda. Proba hauek soilik egingo dira lehiakide batek lehiaketan parte hartzeko eskaera orrian hala eskatzen badu. Onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda argitaratu aurretik egingo dira probak.

e.2.– Ofizialak ez diren hizkuntzetan irakaskuntza eskaintzeko egiaztagiria eskuratzeari buruz Euskal Herriko Unibertsitateko Gobernu Kontseiluak 2010eko ekainaren 24ko akordioaren bidez onartutako arautegian ezarritakoaren arabera (2010-12-02ko EHAA).

2.3.– Ezingo da lehiaketan parte hartu, hautagaia UPV/EHU betetzen ari den plazak lehiaketara ateratakoen ezaugarri berberak badauzka (kategoria, jakintza arloa, saila edo institutua, ikastegia eta hizkuntza eskakizuna).

2.4.– Epaimahaiak beste estatu batzuetako lehiakideei gaztelaniaz dakitela egiazta dezatela eskatu ahalko die, baldin eta uste badu probetan ez dela behar bezala egiaztatu.

2.5.– Artikulu honetan adierazitako baldintzak eskaerak aurkezteko epea amaitzen denerako eduki beharko dira beteta, eta lehiakideek baldintzak betetzen jarraitu beharko dute, kontratua egin arte.

3.– Eskaerak.

3.1.– Hautatze probetan parte hartzeko eskaera egiteko, deialdi honetako III. eranskinetako ereduak beteko da.

3.2.– Lehiaketan parte hartu nahi duten hautagaiek eskaera bidaliko diote Euskal Herriko Unibertsitateko errektoreari, azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearenak, ezartzen dituen bideetako bat erabiliz, deialdi hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean zenbaitzen hasiko den hamabost egun balioduneko epearen barruan. Eskaerak egiteko III. eranskinetako ereduak erabili beharko da, eta eskaerak behar bezala beteta aurkeztuko dira, lehiaketan parte hartzeko baldintzak betetzen direla egiaztatzen duten dokumentuekin batera. Lehiaketan parte hartzeko baldintzak eskaera aurkezteko azken egunerako bete beharko dira.

Parte hartzeko eskaerak UPV/EHUren Erregistro Orokorraren bulegoetan aurkeztuko dira, UPV/EHUren Gobernu Kontseiluak 2012ko maiatzaren 16an hartutako erabakiaren arabera, horren bidez onartzen baita Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatearen Erregistro Orokorraren Antolaketa eta Funtzionamendurako eta Erregistro Elektronikoa sortzeko Arautegia (2012ko ekainaren 18ko EHAA), edo azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikulua ezartzen duen bideetako bat erabilita (Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legea, azaroaren 27ko BOEn argitaratua, eta urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldarazia, urtarrilaren 14ko BOEn argitaratua).

UPV/EHUko Erregistro Orokorraren bulegoen zerrenda UPV/EHUko ikastegietako idazkaritzetan eskura daiteke, eta, gainera: Leioako Errektoregoko bulegoan, Bilboko Larrako Etxean, Arabako Campuseko Errektoreordetzan (Gasteiz) eta Ignacio M.^a Barriola ikasgelategian (Donostia). Interneten ere kontsulta daiteke: http://www.ehu.es/oficinas_registro.html, eta egoitza elektronikoa.

Honako hau da UPV/EHUko Erregistro Orokorraren bulegoen ordutegia:

Astelehenetik ostegunera, 9:00etatik 13:00etara, eta 15:00etatik 16:30era.

Ostiraletan, udako lanaldian, Aste Santuan eta Eguberrietako txandetan:

9:00etatik 13:00etara.

Urte osoko larunbat eta igandeetan, jaiegunetan eta campus eta ikastegi bakoitzeko jaiegun berezietan, itxita egongo dira Erregistro Orokorraren bulegoak.

Nolanahi ere, Euskal Autonomia Erkidegoko jaiegunen egutegi ofiziala eta unibertsitatearena berarena erabiliko dira, epeak zenbatzean aintzat hartu beharreko egun baliogabeak zehazteko.

Eskaera posta bulegoetan aurkezten duten interesdunek abenduaren 3ko 1829/1999 Errege Dekretuaren 31. artikulua xedatutako moduan aurkeztu behar dute. 1829/1999 Errege Dekretuak posta zerbitzuak arautzen ditu, eta honako hau xedatzen du:

Herritarrek edo erakundeek administrazio publikoetako organoei eskaerak, idatziak eta jakinarazpenak bidaltzeko, posta zerbitzu unibertsala emateko prestazioa agindu zaion operadorearen bitartez, gutun-azala irekita aurkeztu beharko dute, bidali nahi duten dokumentuaren lehen orriko goiburuan posta zerbitzukoek argi eta garbi adieraz ditzaten bulegoaren izena eta bidalketaren lekua, eguna, ordua eta minutua. Era berean, igorleak igorpenaren xehetasunak ere agertzeko eska dezake, igorri nahi duen dokumentu nagusiaren kopiaren, fotokopiaren edo erreproduktzioaren aurreneko orria jatorrizko agiriarekin parekatu eta berdina direla egiaztatu ondoren; fotokopia hori ziurtagiri gisa aurkeztuko zaio administrazio organo eskudunari, dokumentu nagusia aurkeztu egin dela frogatzeko.

Aipaturiko diligentziak egin ostean, igorleak berak itxiko du gutun-azala, eta enplegatuak onarpena formalizatu eta onarpenaren gordekina emango dio; jatorrizkoa, berriz, bulegoan artxibatuko du.

Artikulu honetan xedatutako prozesuak errespetatzen badira, posta zerbitzu unibertsala eskaintzeko agindua duen eragileak onarturiko igorpenak behar bezala aurkeztutzat hartuko dira, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38. artikuluan eta hura garatzeko arautegian xedatutako ondorioetarako.

Bestalde, eskaerak unibertsitateko erregistro elektronikoen bidez ere aurkeztu ahal izango dira, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko Erregistro Orokorraren Antolaketa eta Funtzionamendurako eta Erregistro Elektronikoa Sortzeko Arautegian zehaztutakoari jarraituz. Arautegi horretako 27.1 artikuluan jasotakoaren arabera, bide hori erabiliz gero, eskaerak urteko egun guztietan eta eguneko hogeita lau orduetan aurkeztu ahal izango dira. Edonola ere, artikulu horretan bertan jasota daude salbuespenak eta zein egun ez diren baliodun.

UPV/EHuren Erregistro Elektronikora egoitza elektronikoen bidez sartu ahalko da.

Erregistro Elektronikoa aurkeztutako eskariei 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan onartutako bideen bidez egindakoen ondorio berak izango dituzte. Dokumentuak horrela aurkezteko, dokumentu eta kopia digitalizatuak eransteko aukera emango duen prozedura elektronikoki jarraitu beharko zaio, eta prozedura horretako eredu normalizatuak erabili beharko dira.

Eredu horietan, markatuta egongo dira Erregistro Elektronikoa eskaerak, idatziak eta komunikazioak onartzeko nahitaez bete beharreko eremuak.

Eskaeraren inprimakian, jakinarazpenak jasotzeko posta helbide bat edo helbide elektronikoki bat adieraziko da.

3.3.– Eskaerari dokumentu hauek erantsiko zaizkio:

a) Nortasun agiri nazionalaren fotokopia (espainiar nazionalitatea daukaten hautagaiek).

Espainiar nazionalitatea ez daukaten lehiakideek beren nazionalitatea egiaztatzen duen dokumentuaren fotokopia aurkeztu beharko dute.

b) Deialdi honetako 2.2 oinarrian aipatzen diren baldintza akademiko espezifikoak betetzen direla egiaztatzen duten dokumentuen fotokopia erkatua.

c) Azterketa eskubideak ordaindu direla egiaztatzen duen dokumentua.

d) Merezimenduen ziurtagirien fotokopia erkatuak. Merezimenduak aipatzen dira ikertzaile iraunkorrek hautatu eta kontratatzekeo prozeduraren 15. artikuluan. Prozedura hori Euskal Herriko Unibertsitateko Gobernu Kontseiluak onartu zuen 2008ko uztailaren 16an, eta Irakasleen arloko errektoreordearen 2008ko urriaren 20ko Erabakiaren bidez argitaratu zen (azaroaren 26ko EHAA).

3.4.– Plaza elebiduna bada, lehiakideak eskaera orrian berariaz adierazi beharko du parte hartuko duen ala ez euskaraz irakasteko gaitasun agiria eskuratzeko probetan, edo gaitasun hori dagoeneko baduen, Euskararen arloko errektoreordearen 2002ko ekainaren 5eko Erabakian (uztailaren 11ko EHAA) jasotako xedapenen arabera, edo Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko C1 mailaren pareko tituluren bat duen (2010eko azaroaren 15eko EHAA). IV. eta V. eranskinak.

3.5.– Ofiziala ez den hizkuntza bat egiaztatzea eskatzen duen plaza bat bada, lehiakideak eskaera orrian berariaz adierazi beharko du parte hartuko duen ala ez ofiziala ez den hizkuntza batean irakasteko gaitasun agiria eskuratzeko probetan, edo gaitasun hori dagoeneko baduen eta ofizialak ez diren hizkuntzetan irakaskuntza eskaintzeko egiaztagiria eskuratzeari buruzko arautegia onartzen duen Euskal Herriko Unibertsitateko Gobernu Kontseiluaren 2010eko ekainaren 24ko Erabakian (2010-12-02ko EHAA) ezarritakoari jarraituz jasotako xedapenen arabera baliozkotu dakioken. VI. eranskina.

4.– Hautagaiak onartzea.

4.1.– Eskaerak aurkezteko epea behin amaituta, errektoreak agindua emango du lehiaketarako onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrendak onartzeari buruzko erabakia argitaratzeko Lehiaketa Ataleko eta campusetako hiru errektoreordetzetako iragarki oholetan eta UPV/EHUko web orrian. Erabakian jasota geratuko da zein izan den lehiakidea baztertzeko arrazoia, eta 10 egun balioduneko epe luzaezina ezarriko da akatsak zuzentzeko. Nolanahi ere, zuzentzeko epe horretan lehiakideek ezin izango dute aurkeztu eskaerak aurkezteko epea bukatu ondoren lortutako egiaztagiririk.

4.2.– Plaza elebiduna bada, lehiakideek euskaraz dakitela egiaztatu beharko dute, Euskararen arloko errektoreordeak 2002ko ekainaren 5eko erabakian (uztailaren 11ko EHAA) zehaztutakoaren arabera. Nahitaezkoa izango da, eta egiaztatzen ez duten lehiakideak baztertuak izango dira.

Beraz, lehiakideren batek eskatzen badu euskaraz irakasteko gaitasun probak egitea, lehiakide onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda argitaratu baino lehenago egingo dira proba horiek.

4.3.– Eskaerekin batera aurkeztutako agiriak aztertu ondoren, errektoreak onartuen eta baztertuen behin betiko zerrendak onartzeko erabakia emango du, eta erabaki hori Errektoregoko Lehiaketa Ataleko eta hiru campusetako errektoreordetzetako iragarki oholetan argitaratuko da, bai eta UPV/EHUren webgunean ere.

Erabaki hori izapide egintza kualifikatua da, eta aukerako berraztertze errekurtsua aurkeztu ahal izango da haren aurka UPV/EHUko errektorearen aurrean, erabakia UPV/EHUren web orrian argitaratu eta hilabeteko epean, azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 107. artikulua eta hurrengoek ezarritako moduan (Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidorearen Legea, urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldarazia), edo, bestela, administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da zuzenean, bi hilabeteko epean, Bilboko Administrazioarekiko Auzien Epaitegietan.

Onartuen eta baztertuen behin betiko zerrendak onartzeko erabakian jasota ageriko da merezimen-duak aurkezteko probarako deia Errektoregoko Lehiaketa Ataleko iragarki oholean eta campusetako hiru errektoreordetzetakoetan argitaratuko dela, bai eta UPV/EHUko webgunean ere.

4.4.– Ezin izango da aurkeztu onartuen eta baztertuen behin betiko zerrendaren aurkako erre-kurtsorik, baldin eta interesdunak ez badu behin-behineko zerrendaren aurkako erreklamaziorik aurkeztu, bere hartan utziriko egintza irmoa delako.

5.– Epaimahaiak.

5.1.– Lehiaketetako epaimahaiak erabaki honen II. eranskinean adierazietako pertsonak osa-tuko dituzte, eta errektoreak izendatuko ditu. Epaimahaiei buruzko alderdiak jasota daude ikertzaile iraunkorrak hautatu eta kontratatzekeko prozeduraren araudian (10. artículo), Euskal Herriko Uniber-tsitateko Gobernu Kontseiluak 2008ko uztailaren 16ko bileran onartutakoa eta Irakasleen arloko errektoreordearen 2008ko urriaren 20ko Erabakiaren bidez argitaratua (azaroaren 26ko EHAA).

5.2.– Epaimahaikideek ezingo diote uko egin izendapenari, bertan aritzea eragozten dien arrazoi justifikaturik ez badaukate behintzat. Errektoregoak, halakoetan, adierazitako arrazoa aztertuko du, eta erabakia hartuko bost egun balioduneko epean, izendapenari ezetz esaten dion idatzia jasotzen den egunetik kontaktzen hasita.

5.3.– Lehiakideek epaimahaikideak errekusatu ahal izango dituzte, edo epaimahaikideek uko egin ahal izango diote parte hartzeari, azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 28. eta 29. artikuluetan aurreikusitako parte ez hartzeko edo errekusatzeko egoeraren bat sortuz gero (Herri Adminis-trazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legea, urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldarazia).

Epaimahaikide titularrei jardutea eragozten dien abstentzio, errekusazio edo beste inguruaba-rren bat (funtzionario izaera edo kontratu iraunkorra galtzea, borondatezko eszedentzia hartzea, eginkizun gabetzea, etab.) gertatuz gero, dagozkien ordezkioak ariko dira haien ordezkio.

Ordezko kideak ere ezin badu jardun epaimahaian, aipatutako egoeraren batean dagoelako, kategoria eta antzinasun handieneko ordezkioa arituko da haren ordezkio. Ordezko guztiei ezinez-koa bazaie epaimahaian aritzea eta ezinezkoa bada epaimahaia ondorengo artikuluan azaltzen den moduan eratzea, beste epaimahai bat izendatuko da.

5.4.– Epaimahaia eratzeko deia epaimahaiburuak egingo du, eta epaimahaikide titular eta ordezkio guztiei jakinaraziko die bilera eguna baino gutxienez 15 egun lehenago. Bilerako deial-diak biltzeko eguna, ordua eta tokia zehaztuko ditu, eta UPV/EHUko web orrian eta probak egingo diren ikastegiko iragarki oholean argitaratuko da. Epaimahaia eratzerakoan kide titular guztiak bertan egonez gero, ordezkoek ez dute zertan joan.

5.5.– Epaimahaia balioz eratzeko, gutxien dela bost kidek egon beharko dute. Epaimahaikideak egon daitezke funtzio publikoaren arautegian aurreikusitako edozein egoeratan edo haien parekoe-tan lan kontratudun langileen kasuan, borondatezko eszedentzian edo eginkizun gabetzean izan ezik. Seme-alabak zaintzeko eszedentzian daudenek parte hartu ahal izango dute epaimahaietan.

Epaimahaikide titularren batek eszedentzia hartzen badu, eginkizunez gabetzen badute edo funtzionario edo kontratatu iraunkorra izateari uzten badio, epaimahaia utziko du, eta ordezkioa jarriko zaio.

Epaimahaikide ordezkoren batek borondatezko eszedentzia hartzen badu, eginkizunez gabe-tzen badute edo funtzionario edo kontratatu iraunkorra izateari uzten badio, ordezkioen artetik kategoria eta antzinasun handiena daukanak hartuko du haren lekua. Aukera horiek guztiak agortuta ezin bada epaimahaia eratu, beste epaimahai bat izendatuko da.

Hala ere, behin epaimahaia eratuta, erabakiak hartzeko nahikoa izango da epaimahaiburua eta idazkaria, edo beren legezko ordezkioak, eta epaimahaikideetako bat bertan izatea.

Epaimahaia eratzean bertan ez dauden kideak behin betiko geratuko dira epaimahaiaren jardueratik baztertuta.

5.6.– Lehen bileran, epaimahaiak erabaki hauek hartuko ditu:

1.– Probatako emaitzak non argitaratuko diren, Deialdi eta Lehiaketa Atalaren eta probak egingo diren lekuaren iragarki oholez gain.

2.– Lehiakideek zein hurrenkeratan hartuko duten parte probetan.

3.– Balioespenerako irizpide zehatzak.

5.7.– Aipatutako erabaki guztiak UPV/EHUren web orrian, probak egingo diren ikastegiko iragarki oholean eta Deialdien eta Lehiaketen Ataleko iragarki oholean argitaratuko dira, gutxienez.

5.8.– Epaimahaiaren jardun administratiboaz eta gestio ekonomikoaz idazkaria arduratuko da, unibertsitateko administrazioko langileen laguntzarekin.

6.– Probak.

6.1.– Epaimahaiak, jarduterakoan, bermatu egingo dute lehiakide guztiek aukera berberak dituztela, eta publizitate, merezimendu eta gaitasun printzipioak errespetatuko dituzte.

6.2.– Deialdi honetan eta ikertzaile kontratatu iraunkorrak hautatu eta kontratatzeko prozeduran (Euskal Herriko Unibertsitateko Gobernu Kontseiluak 2008ko uztailaren 16an onartua eta Irakasleen arloko errektoreordearen 2008ko urriaren 20ko Erabakiaren bidez argitaratua, azaroaren 26ko EHAAn) zehaztuta ez dauden alderdietarako, epaimahaiak Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeak kide anitzeko organoez xedatzen duenari jarraituko dio.

6.3.– Probak egiten hasi aurretik, epaimahaiak eguna eta ordua zehaztuko ditu, lehiakideek lehenengo proban erabiliko dituzten merituek aurkez dituzten. Informazio hori argitara emango da, UPV/EHUren webgunean jarrita. Lehiakideek aipatutako merezimendu horien egiaztagiriak aurkeztu beharko dituzte bertan. Epaimahaiak, era berean, gainerako probak zein egun eta ordutan egingo diren zehaztuko du.

Merezimenduak aurkezteko ekitaldia epaimahaia eratu eta hurrengo egun baliodunean izango da. Hala ere, lehiakideek uko egin ahal izango diote epe horri.

6.4.– Lehenengo proba lehiakideek agiriak eta merezimenduak aurkeztu eta hurrengo egun baliodunean egingo da. Hala ere, lehiakideek uko egin ahal izango diote epe horri. Hurrengo probak hori bukatu eta berehala egingo dira.

6.5.– Ez da beharrezkoa fotokopiak erkatzea, baina aurkezpena jatorrizkoak eraman beharko dira epaimahaiak eta gainerako lehiakideek egiaztatzeko aukera izan dezaten.

Lehiakideek aukera izango dute eskaeran adierazitako datuak zehaztu edo osatzeko nahi dituzten elementuak gehitzeko, eta epaimahaiak erabakiko du onartu eta kontuan hartuko dituen.

6.6.– Oinarri hauetako 6.8. oinarrian aipatutako dokumentuak bi hilabetez edukiko dituzte gordeta Deialdi eta Lehiaketen Atalean, epaimahaiak proposamena egiten duen egunetik zenbatzen hasita. Baina proposamen horren kontrako errekurtsorik aurkezten bada, dokumentuak gordeta eduki beharko dira, ebazpen administratibo edo judizial irmo bat eman arte.

Beste urtebete igarotzen bada eta interesatuak ez badira aipatutako dokumentuak hartzera joan, unibertsitateak dokumentuak suntsitu ahal izango ditu.

6.7.– Epaimahaiburuak aurkezpen ekitaldian jakinaraziko du, halaber, lehiakideek zein epe izango duten gainerako lehiakideek proba egin baino lehenago aurkeztutako dokumentuak aztertzeko.

6.8.– Lehiakideek honako dokumentu hauek emango dizkiote epaimahaiburuari aurkezpen ekitaldian:

a) Curriculum vitae (bost ale), VII. eranskineko ereduari jarraiki; eta curriculumean aipatutakoa egiaztatzen duten argitalpenen eta dokumentuen ale bana.

b) Plaza eskuratuz gero lehiakideak burutuko duen irakaskuntza proiektua (bost ale). Proiektu horiek unibertsitateak deialdian ezarritako ezaugarrietara egokituko dira.

c) Ikerlan original bat (bost kopia).

6.9.– Ikertzaile doktoreen plazetarako lehiaketak hiru proba edo fase izango ditu, denak baztertzailak. Proba horiek ebaluatzeko, kontuan hartuko dira ikertzaile iraunkorrek hautatzeko eta kontratatzeko prozeduran (Euskal Herriko Unibertsitateko Gobernu Kontseiluak 2008ko uztailaren 16an onartua, eta 2008ko azaroaren 26ko EHAAn argitaratua) ezarritako Irizpide Orokorrak eta Irizpide Espezifikoak (IX. eranskina) eta epaimahaiak onartutako irizpide zehatzak.

6.10.– Lehenengo proban edo fasean, lehiakideak irakaskuntzaren eta ikerketaren arloan eta, horrelakorik izanez gero, lan arloan egindako ibilbidea eta lortutako merituen aurkeztu, eta epaimahaiarekin batera aztertuko ditu. Lehiakideek behar beste denbora izango dute ahozko azalpen horretarako, baina 60 minututik pasatu gabe.

Ondoren, epaimahaiak lehiakide bakoitzarekin eztabaidatuko du, bi orduz gehienez, alegatutako merezimenduen inguruan.

Epaimahaiak adituen iritzia eskatu ahal izango du, lehiakideen merezimenduei buruz. Nolanahi ere, txostenak ez dira lotesleak izango, eta lehiaketaren aktari atxikiko zaizkio.

Proba horretan, 50 puntu lor daitezke, gehienez ere, eta gainditzeko eta bigarren probara igarotzeko, 25 puntu lortu beharko dira, gutxienez.

6.11.– Bigarren fasean edo proban, lehiakideak bere ikerketa proiektua (k) aurkeztu, eta epaimahaiarekin batera aztertuko ditu.

Proba horretan, 25 puntu lor daitezke, gehienez ere, eta gainditzeko eta hirugarren probara igarotzeko, 12,50 puntu lortu beharko dira, gutxienez.

6.12.– Hirugarren proban, plazari dagokion zientziaren arloan egindako jatorrizko ikerlan bat aurkeztu eta aztertuko du lehiakideak.

Proba horretan, 25 puntu lor daitezke dira, gehienez ere, eta gainditzeko 12,5 puntu lortu beharko dira, gutxienez.

6.13.– Lehiakide bakar batek ere proba edo fase guztiak gainditu ezean, epaimahaiak eman gabe utziko ditu plazak.

6.14.– Proba edo fase bakoitza bukatuta, epaimahaiak bilduko da, eta kide bakoitzak puntuazio bat emango dio lehiakide bakoitzari, eta balorazio hori azaltzeko txostena aurkeztuko du. Lehiakideak baloratzean, baremo orokorrari eta epaimahaiak onartutako irizpide espezifikoei erreparatuko diete epaimahaiakideek. Epaimahaiakide guztiak iritzi berekoak badira, kide guztien txostenen ordez txosten bakarra egin ahal izango du epaimahaiak, kuantifikatua eta arrazoitua. Berdinketarik badago, epaimahaiburuak kalitate botoa izango du.

6.15.– Epaimahaiak aintzat hartu beharko ditu deialdi honen IX. eranskinean jasotako irizpide orokorrak eta zehatzak.

7.– Merezimenduen balorazioa.

Hiru probak egin ondoren eta hautaketa prozesua zer hautagaik gainditu duten zehaztu ondoren, merezimenduak balioetsiko dira, honako hauen arabera:

1.– Jakintza arlorako gaitasun probak gaindituta izatea (uztailaren 26ko 774/2002 ED) edo akreditazioa izatea (urriaren 5eko 1312/2007 ED): 20 puntu.

2.– Ikerketako Zuzendaritza Nagusiak (I3 programa; maiatzaren 26ko ECI/1520/2005 Agindua) ibilbide nabarmena duen ikertzaile gisa akreditatzeko emandako egiaztatzea edo antzeko ebaluazioen bat izatea: 20 puntu.

3.– Euskara jakitea elebidun ez diren plazetan bakarrik baloratuko da. Balorazioa egiteko aintzat hartuko da ikertzaile iraunkorren plazak betetzeko lehiaketan arautegiak, Gobernu Kontseiluak 2008ko uztailaren 16an onartutakoak (2008ko azaroaren 26ko EHAA), bere VIII. eranskinean aurreikusitakoa. Merezimendu horrengatik prozesuan guztira lor daitekeen puntuazioaren % 11 lortu ahal izango da gehien dela.

8.– Kontratazio proposamena.

8.1.– Amaierako nota probetan lortutako noten batura izango da, eta horri zazpigarren oinarrian aurreikusitako merezimenduetan, halakorik bada, lortutako puntuak batuko zaizkio.

8.2.– Proba guztiak gainditu dituen lehiakiderik badago, epaimahaiak kontratazio proposamena egingo du, txostenak eta zenbaketa aritmetikoak kontuan hartuta. Epaimahaiaren proposamena Errektoregoko Deialdi eta Lehiaketa Ataleko eta hiru campusetako errektoreordetzetako iragarki oholetan argitaratuko da, bai eta UPV/EHuren webgunean ere.

8.3.– Kontratatzeke edo plaza bete gabe uzteko proposamenean, lehiakide bakoitzaren balioespen zehatza jasoko da, arrazoiak emanda, eta lehiakide bakoitzak zenbat puntu lortu dituen ere adieraziko da. Plaza hutsik uzteko edo kontratatzeke erabakiaren kontra erreklamazioa jar dakioko unibertsitateko irakasleen kidegoetako plazak betetzeko epaimahaien aurkako erreklamazioak aztertzen dituen Erreklamazio Batzordeari, 15 eguneko epean, erabakia Errektoregoko Deialdi eta Lehiaketan Ataleko iragarki oholetan argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

8.4.– Ezin izango da plaza hutsik utzi seigarren oinarrian aipatutako probak gainditu dituen lehiakideren bat badago.

8.5.– Epaimahaiak lehiakideak ordenatuko dituzte lortutako puntuazioaren arabera, eta puntuazio handiena lortu duena proposatuko dute plaza betetzeko. Ezin izango dute kide gehiago proposatu, lehiaketan eskainitako plaza kopurua baino.

8.6.– Aurreko atalean zehaztutakoa gorabehera, epaimahaiak ordezkioak proposatu ahal izango dituzte, puntuazioaren arabera ordenatuta, plaza betetzeko proposatu den izangaiak kontratua sinatzeari uko eginez gero, ordezko horiengana jotzeko.

8.7.– Epaimahaiakide guztiek lehiakide guztiak kalifikatu behar dituzte. Epaimahaiakide guztiak kalifikazioan bat etorri gero, txosten bakarria eman ahal izango dute, 6.15. oinarrian aurreikusitakoaren arabera.

8.8.– Kontraturako proposatu ez diren lehiakideek ez dute eskubiderik izango plaza hutsik betetzeko, ez eta lan poltsetan sartzeko eskaera egiteko ere.

8.9.– Epaimahaiko idazkariak bost egun baliodun izango ditu, epaimahaiaren jarduna bukatzen denetik, lehiaketako espediente administratiboa aurkezteko unibertsitateko Idazkaritza Nagusian, Deialdi eta Lehiaketa Atalaren bidez. Espedientean honako dokumentu hauek bildu beharko dira:

a) Epaimahaia eratzean egin beharreko akta eta epaimahaiaren saio guztietako aktak. Horietan jasoko dira egindako jarduera nagusiak eta proben balorazioan erabilitako irizpide nagusiak, irizpide espezifikoak eta irizpide zehatzak.

b) Aurkezpen ekitaldian lehiakideek epaimahaiburuari emandako ikerketa proiektua (k) eta ikerlan originala.

c) Proba bakoitzaren txostenak eta zenbakizko balorazioak.

d) Probak gainditu dituzten lehiakideen merezimenduen balorazioa.

e) Kontratazio proposamenaren akta, kontrataziorako lehentasun ordenaren arabera osatutako hautagaien zerrendarekin.

8.10.– Lehiakideek Unibertsitateko Idazkaritza Nagusiarik eskatu ahal izango diote epaimahakide bakoitzak beren merezimenduen inguruan emandako balioespen arrazoituaren ziurtagiria (behar bezala kuantifikatua) edo, hala badagokio, epaimahaiaren txosten bakarra.

8.11.– Lehiakideek epaimahaiaren proposamenaren aurkako erreklamazioa aurkeztu ahal izango diote errektoreari. Horretarako hamabost egun balioduneko epea izango dute, proposamena UPV/EHUko webgunean argitara ematen den egunetik zenbatzen hasita. Hautapen prozesuan parte hartu ez duten edo parte hartzeari uko egin dioten pertsonak ezin izango dute errekurtsorik jarri. Erreklamazioa izapidetzeko onartzen bada, kontratazioaren formalizazioa eten egingo da, erreklamazioa behin betiko ebatzi arte.

8.12.– Irakasle-ikertzaile funtzionarioen plazetarako epaimahaien aurka jarritako erreklamazioak aztertzen dituen Erreklamazio Batzordeak aztertuko ditu erreklamazioak, eta errektoreak hartuko du horien gaineko erabakia.

Erreklamazio Batzordeak lehiaketako espedientea aztertuko du, lehiakideen berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioak bermatzeko; egoki deritzen ekintza guztiak burutuko ditu, eta erreklamazioa onartzen duen ala ez erabakiko du hiru hilabeteko epearen barruan, erreklamazioa jasotzen duen egunetik zenbatzen hasita. Epe hori berriazko erabakirik eman gabe igarotzen bada, erreklamazioa ezetsi delako izango da, eta administrazioarekiko auzien bidera jo ahal izango da.

8.13.– Erreklamazio Batzordeak hartutako erabakiak lotesleak izango dira errektorearentzat eta, haren erabakiek administrazio bidea agortzen dutenez, aurka egiteko administrazioarekiko auzien jurisdikziora jo beharko da zuzenean, uztailaren 13ko 29/1998 legeari jarraituz.

8.14.– Erreklamazio Batzordeak erreklamazioa onartzea erabakiz gero, errektoreak argitara emango du erabakia, eta akatsa gertatu zen unera eramango da berriz prozedura; epaimahaiak, beharrezkoa izanez gero, beste izendapen proposamen bat egingo du.

9.– Dokumentuak aurkeztea eta kontratazioa.

9.1.– Epaimahaiak proposatutako kontratazioak errektoreak egingo ditu, lehiakideak behin egiaztatu eta gero deialdi honetako bigarren oinarrian aipatzen diren baldintzak betetzen dituela, Deialdi eta Lehiaketa Atalean behar diren dokumentuak aurkeztuta. Lehiakideak hogeitun eguneko epea izango du dokumentuak aurkezteko, kontratazio proposamena UPV/EHUko webgunean argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

9.2.– Aurretik esandakoaz gain, proposatutako lehiakideak, kontratua formalizatzeko, dokumentu hauek aurkeztu beharko ditu aipatutako epearen barruan:

a) Medikuaren ziurtagiri ofiziala, unibertsitateko ikertzaile doktoreari dagozkion eginkizunak betezea eragozten duen gaixotasunik eta eragozpen fisiko edo psikikorik ez duela adierazten duena.

b) Zinpeko aitortpena, diziplina espedientearen bidez estatuko administrazio orokorreko zerbitzutik edo autonomia, erakunde eta herrietako administrazioetatik aldentuta ez dagoela, eta eginkizun publikoak betetzeko ezgaiturik ez dagoela adierazten duena. Espainiako nazionalitatea ez dutenek ez dute izan beharko haien estatuko funtzio publikoan jardutea eragozten dien diziplina zehapenik edo kondena penalik.

Karrerako funtzionario publikoek edo kontratatu iraunkorrek ez dituzte aurkeztu eta egiaztatu beharko atal honetan aipatutako dokumentu eta betekizunak. Horien ordean, lanean ari diren administrazioaren ziurtagiria aurkeztu beharko dute, funtzionario edo kontratatu iraunkorrek direla egiaztatu eta haien zerbitzu orrian azaltzen diren gorabehera guztiak adieraziko dituen.

9.3.– Plaza betetzeko proposatutako lehiakideak ez baditu aurkezten eskatutako dokumentuak, galdu egingo ditu bere eskubideak eta ezin izango du kontratua sinatu, ez baldin badu egiaztatzen dokumentuak ez aurkeztea ezinbesteko arrazoiengatik izan dela. Unibertsitateko errektoreak zerrendako hurrengo lehiakidearekin sinatuko du kontratua, lehiakide horrek gorago aipatutako baldintzak betetzen dituela egiaztatu ondoren. Hogei eguneko epea izango du horretarako, arrazoa jakinarazten denetik kontatzen hasita.

10.– Azken araua.

10.1.– Deialdi honetan eta ikertzaile iraunkorrek hautatu eta kontratatze prozeduran (Euskal Herriko Unibertsitateko Gobernu Kontseiluak 2008ko uztailaren 16an onartua eta Irakasleen arloko errektoreordearen 2008ko urriaren 20ko Erabakiaren bidez argitaratua, azaroaren 26ko EHAAn) egunak zenbatzerakoan ez da aintzat hartuko abuztua. Hilabete horretan ez da inongo ekintzarik burutuko.

10.2.– Lehiaketa egin bitartean, epaimahaiek argituko dituzte deialdiaren aplikazioaren inguruan sor daitezkeen zalantzak, bai eta aurreikusi ez diren egoeretan nola jokatu ere. Dena dela, epaimahaien jardunak bat etorri beharko du azaroaren 26ko Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearekin (urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatua).

10.3.– Erabaki honek amaiera ematen dio administrazio bideari, eta haren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkez daiteke administrazioarekiko auzietarako Bilboko epaitegietan bi hilabetetako epean, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Bestela, aukerako berraztertze errekurtsua aurkez dakioke Euskal Herriko Unibertsitateko errektoreari hilabeteko epean, erabakia Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita. Hala egiten bada, ezin izango da jarri aurreko paragrafoan aipatutako administrazioarekiko auzi errekurtsua, harik eta berraztertze errekurtsua berariaz ebatzi arte edo presuntziozko ezespina gertatu arte, hilabete bat igaro delako berariazko erabakirik eman gabe.

10.4.– Era berean, deialdi honetatik eta epaimahaiaren jardunetik eratorritako administrazio egintza guztien aurka egin ahal izango da, azaroaren 26ko 30/1992 Legean jasotako kasuetan eta bertan adierazitako moduan.

2016ko apirilaren 15a, ostirala

Leioa, 2016ko martxoaren 17a.

Errektorea.

Izenpea eskuordetuta (errektorearen 2013ko urtarrilaren 30eko Ebazpena).

Irakasle-Ikertzaileen Arloko Errektoreordea,
XABIER ETXANIZ ERLE.

I. ERANSKINA

Lanpostuaren zk.: 1. Kodea: IDPTCL1 – D00039 - 4. Kategoria: Doktore ikertzailea. Jakintza arloa: Kimika Fisikoa. Saila: Kimika Fisikoa. Ikastegia: Zientzia eta Teknologia Fakultatea. Hizkuntza eskakizuna: Ez Elebiduna. Arduraldia: osoa. Ikertzaile profila: «Espektroskopia Molekularra».

Lanpostuaren zk.: 2. Kodea: IDPTCL1 – D00040 - 5. Kategoria: Doktore ikertzailea. Jakintza arloa: Kimika Organikoa. Saila: Kimika Organikoa I. Saila: Farmazia Fakultatea. Hizkuntza eskakizuna: ez Elebiduna. Arduraldia: osoa. Ikertzaile profila: «Kimika Organikoa», «Konposatu Organofosforatuak».

Lanpostuaren zk.: 3. Kodea: IDPTCL1 – D00112 - 2. Kategoria: Doktore ikertzailea. Jakintza arloa: Ingeniaritza Kimikoa. Saila: Ingeniaritza Kimikoa eta Ingurumenaren Ingeniaritza. Saila: Gipuzkoako Ingeniaritza Eskola. Hizkuntza eskakizuna: ez Elebiduna. Arduraldia: osoa. Ikertzaile profila: «Material Polimerikoak Nanoegituradunak».

Lanpostuaren zk.: 4. Kodea: IDPTCL1 – D00127 - 1. Kategoria: Doktore ikertzailea. Jakintza arloa: Analisi Matematikoa. Saila: Matematika. Ikastegia: Zientzia eta Teknologia Fakultatea. Hizkuntza eskakizuna: ez Elebiduna. Arduraldia: osoa. Ikertzaile profila: «Deribatu Partzialetako Ekuazioak».

Lanpostuaren zk.: 5. Kodea: IDPTCL1 – D00203 - 2. Kategoria: Doktore ikertzailea. Jakintza arloa: Kimika Fisikoa. Saila: Polimeroen Zientzia eta Teknologia. Saila: Kimika Fakultatea. Hizkuntza eskakizuna: ez Elebiduna. Arduraldia: osoa. Ikertzaile profila: «Kimika Teorikoa eta Konputazionala».

II. ERANSKINA

1.– Plazak betetzeko lehiaketarako epaimahaia. Kategoría: Doktore ikertzailea. Jakintza arloa: Kimika Fisikoa. Kodea: IDPTCL1- D00039 - 4.

Epaimahai titularra:

Epaimahaiburua: Alberto Lesarri Gómez. Valladolideko Unibertsitateko katedraduna

Idazkaria: Francisco José Basterretxea Elguezabal. UPV/EHUko titularra

Epaimahaikidea: Luis Bañares Morcillo. Unibertsitate Konplutentseko katedraduna

Epaimahaikidea: Otilia M^o Romero. Madrilgo Unibertsitate Autonomoko katedraduna

Epaimahaikidea: Belén Maté Naya. Zientzialari titularra. Materiaren Azpiegitura Institutua (Ikerketa Zientifikoen Goi Kontseilua/CSIC)

Ordezko epaimahaia:

Epaimahaiburua: Isabel Tanarro Onrubia. Zientzi ikertzailea. Materiaren Azpiegitura Institutua (Ikerketa Zientifikoen Goi Kontseilua/CSIC)

Idazkaria: José Andrés Fernández González. UPV/EHUko ikertzaile doktore iraunkorra

Epaimahaikidea: Bruno Martínez Haya. Pablo Olavide Unibertsitateko katedraduna

Epaimahaikidea: Agustí Lledos. Bartzelonako Unibertsitate Autonomoko katedraduna

Epaimahaikidea: Inmaculada de la Rosa García. Valladolideko Unibertsitatea

2.– Plazak betetzeko lehiaketarako epaimahaia. Kategoría: Doktore ikertzailea. Jakintza arloa: Kimika Organikoa. Kodea: IDPTCL1- – D00040 - 5.

Epaimahai titularra:

Epaimahaiburua: Francisco Palacios Gamba. UPV/EHUko katedraduna

Idazkaria: Humberto Rodríguez Solís. Oviedoko Unibertsitateko titularra.

Epaimahaikidea: Jaime Primo Millo. Valentziako Unibertsitate Politeknikoko katedraduna

Epaimahaikidea: M.^a José Camarasa Rius. Ikerketa Zientifikoen Goi Kontseiluaren (CSIC)ikerketarako irakaslea

Epaimahaikidea: M.^a Cruz Caballero Salvador. Salamancako Unibertsitateko katedraduna

Ordezko epaimahaia:

Epaimahaiburua: Esther Domínguez Pérez. UPV/EHUko katedraduna

Idazkaria: Miguel Ferrero Fuertes. Oviedoko Unibertsitateko irakasle titularra.

Epaimahaikidea: Fernando López Ortiz. Almeriako Unibertsitateko katedraduna

Epaimahaikidea: Rosa M.^a Claramunt Vallespi. Madrileko Urrutiko Hezkuntzarako Unibertsitate Nazionaleko katedraduna

Epaimahaikidea: M.^a del Carmen Nájera Domingo. Alacanteko Unibertsitateko katedraduna

3.– Plazak betetzeko lehiaketarako epaimahaia. Kategoría: Doktore ikertzailea. Jakintza arloa: Ingeniaritza Kimikoa. Kodea: IDPTCL1- – D00112 - 2.

Epaimahai titularra:

Epaimahaiburua: Pedro Luis Arias Ergueta. Unibertsitateko katedraduna. UPV/EHU.

Idazkaria: Massimo Lazzari. Unibertsitateko titularra. Santiagoko Unibertsitatea.

Epaimahaikidea: Carmen Mijangos Ugarte. Ikerketa Zientifikoen Goi Kontseiluko (CSIC)irakasle ikertzailea.

Epaimahaikidea: M.^a Desamparados Ribes Greus. Unibertsitateko katedraduna. Valentziako Unibertsitate Politeknikoa.

Epaimahaikidea: Alejandro Ureña Fernández. Unibertsitateko katedraduna. Juan Carlos Erregea Unibertsitatea.

Ordezko epaimahaia:

Epaimahaiburua: Pedro Antonio Santamaría Ibarburu. Unibertsitateko katedraduna. UPV/EHU.
Idazkaria: Alfonso Jiménez Migallón. Unibertsitateko titularra. Alacanteko Unibertsitatea.

Epaimahaikidea: M.^a Lluisa MasPOCH Ruldua. Unibertsitateko katedraduna. Valentziako Unibertsitate Politeknikoa.

Epaimahaikidea: Francisco López Baldovín. Unibertsitateko katedraduna. Huelvako Unibertsitatea.

Epaimahaikidea: M.^a Aranzazu Eceiza Mendiguren. Unibertsitateko titularra. UPV/EHU.

4.– Plazak betetzeko lehiaketarako epaimahaia. Kategoría: Doktore ikertzailea. Jakintza arloa: Analisi Matematikoa. Kodea: IDPTCL1- – D00127 - 1.

Epaimahai titularra:

Epaimahaiburua: Julián Aguirre Estibalez. UPV/EHUko katedraduna

Idazkaria: José Luis López García. Nafarroako Unibertsitate Publikoko katedraduna

Epaimahaikidea: Henar Herrero Sanz. Gaztela-Mantxako Unibertsitateko katedraduna

Epaimahaikidea: Ana Carpio Rodríguez. Unibertsitateko katedraduna. Madrilgo Unibertsitate Konplutentsea

Epaimahaikidea: María Jesús Esteban Galarza. Paris-Dauphine Unibertsitateko katedraduna.

Ordezko epaimahaia:

Epaimahaiburua: Miguel Escobedo Martínez. UPV/EHUko katedraduna

Idazkaria: María Jesús Carro. Bartzelonako Unibertsitateko katedraduna

Epaimahaikidea: M.^a Teresa Mtnez-Seara Alonso. Unibertsitateko katedraduna. Kataluniako Unibertsitate Politeknikoa

Epaimahaikidea: Peregrina Quintela Estévez. Unibertsitateko katedraduna. Santiagoko Unibertsitatea.

Epaimahaikidea: Marco Antonio Fontelos López. Ikerketa Zientifikoen Goi Kontseiluko (CSIC) ikertzaile zientifikoa.

5.– Plazak betetzeko lehiaketarako epaimahaia. Kategoría: Doktore ikertzailea. Jakintza arloa: Kimika Fisikoa. Kodea: IDPTCL1- D00203 - 2.

Epaimahai titularra:

Epaimahaiburua: Manuel Yáñez Montero. Unibertsitateko katedraduna. Madrilgo Unibertsitate Autonomoa.

Idazkaria: José Javier López Pestaña. Unibertsitateko titularra. UPV/EHU

Epaimahaikidea: Miquel Solá i Puig. Unibertsitateko katedraduna. Gironako Unibertsitatea

Epaimahaikidea: Mariona Sodupe Roure. Unibertsitateko katedraduna. Bartzelonako Unibertsitate Autonomoa

Epaimahaikidea: María Aurora Costales Castro. Unibertsitateko titularra. Oviedoko Unibertsitatea.

Ordezko epaimahaia:

Epaimahaiburua: Otilia Mó Romero. Unibertsitateko katedraduna. Madrilgo Unibertsitate Autonomoa

Idazkaria: Agustín Etxeberria Lizarraga. Irakasle titularra. UPV/EHU

Epaimahaikidea: Antonio Largo Cabrerizo. Unibertsitateko katedraduna. Valladolideko Unibertsitatea

Epaimahaikidea: Ángel Martín Pendás. Unibertsitateko katedraduna. Oviedoko Unibertsitatea

Epaimahaikidea: Carmen Barrientos Benito. Unibertsitateko katedraduna. Valladolideko Unibertsitatea

2016ko apirilaren 15a, ostirala

III. ERANSKINA

ESKAERA

Errektorea:

Ikertzaile doktoreen kategoriako plazak betetzeko lehiaketarako deialdia egin denez, plaza horietako bat betetzeko hautagaia izateko eskaera egiten dut.

I. Lehiaketara aterako den plazaren datuak.

Plazaren kodea	Kategoria	Jakintza arloa
Saila	Ikastegia	
Arduraldia	Hizkuntza eskakizuna	
Egin beharreko ikerketa jarduerak		
Deialdia egiteko erabakia	EHAAko argitaratze data	

II.– Datu pertsonalak.

Lehenengo abizena	Bigarren abizena		Izena
Jaiotza data	Jaioterria	Jaiotza probintzia	IFZ
Jakinarazpenak jasotzeko helbidea		Telefonoa	Helbide elektronikoa
Udalerria	Posta kodea	Probintzia	

2016ko apirilaren 15a, ostirala

III.– Datu akademikoak.

Tituluak	Noiz lortua
Irakaskuntza esperientzia	
Eskaerarekin batera aurkeztutako agiriak	

2016ko apirilaren 15a, ostirala

IV. ERANSKINA

PLAZA ELEBIDUNAK

Euskaraz irakasteko gaitasun agiria eskuratzeko probetan parte hartu nahi duzu?

Bai

Ez

Ezer markatu ezean, euskaraz irakasteko gaitasun agiria eskuratzeko probetan ez duzula parte hartu nahi ulertuko da.

2016ko apirilaren 15a, ostirala

V. ERANSKINA

MEREZIMENDUAK

1.- Jakintza arlorako gaitasun probak gaindituta izatea (uztailaren 26ko 774/2002 ED) edo akreditazioa izatea (urriaren 5eko 1312/2007 ED):

.....

2.- Euskararen ezagutza egiaztatzeke agiria:

.....

2016ko apirilaren 15a, ostirala

VI. ERANSKINA

HIZKUNTZA EZ-OFIZIALAREN ESKAKIZUNA DUTEN PLAZAK

Hizkuntza ez-ofizialaren ezagutza egiaztatzeko probetan parte hartu nahi duzu?

Bai

Ez

Ezer markatu ezean, hautagaiak hizkuntza ez-ofizialaren ezagutza egiaztatzeko probetan ez duela parte hartu nahi ulertuko da.

Behean sinatzen duenak,

ESKATZEN DU: kode honekin identifikatutako plaza betetzeko lehiaketan parte hartzea:

Jakintza arloa:

ADIERAZTEN DU: eskari honetan emandako datu guztiak egiazkoak direla eta aipatutako deialdian eskatzen diren baldintza guztiak betetzen dituela, baita Funtzio Publikora sartzeko eskatutako baldintza orokorrak ere.

....., 20xx(e)ko ren (a)

Interesdunaren sinadura

UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO/EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEKO ERREKTORE
JAUNA

VII. ERANSKINA.

CURRICULUM VITAE

DATU PERTSONALAK:

Abizenak eta izena.
Nortasun agiriaren zenbakia.
Non eta noiz emana:
Jaiotza: data, herria eta probintzia.
Bizilekua: helbidea, udalerria, probintzia eta telefono zk.
Egungo kategoria irakasle kidegoan.
Irakaskuntza eta ikerketa jardueren ebaluazio positiboa (Aneca edo Uniqua).

DATU AKADEMIKOAK:

1.- Titulu akademikoak (mota, zer erakundek edo zentrok emana, noiz emana, kalifikazioa, edukiz gero).

2.- Irakasle gisa izandako lanpostuak (kategoria, erakundea edo zentroa, arduraldia, izendapenaren edo kontratuaren hasiera eta amaiera data).

3.- Ikerketa jarduerak.

4.- Argitaratutako liburu eta monografiak (egilea edo egileak, izenburua, argitaratzailea, argitaletxea eta urtea) (argitaratzekotan badago, argitalpen kontseiluak onartu egin duela adierazten duen agiria).

5.- Espainiako edo atzerriko aldizkarietan argitaratutako lan zientifikoak (egilea edo egileak, izenburua, aldizkaria, alea, orrialdea, urtea) (argitaratzekotan badago, argitalpen kontseiluak onartu egin duela adierazten duen agiria).

6.- Beste argitalpen batzuk.

7.- Beste ikerlan batzuk.

8.- Ikerketa proiektuak, diru laguntzaz egindakoak.

9.- Biltzarretan aurkeztutako komunikazioak eta hitzaldiak.

10.- Patenteak.

11.- Emandako ikastaroak eta mintegiak (zentroa, erakundea, gaia, garatutako jarduera eta data).

12.- Hartutako ikastaroak eta mintegiak (zentroa, erakundea, gaia, garatutako jarduera eta data).

- 13.- Jasotako bekak, laguntzak eta sariak (lizentziatu ondorengoak).
- 14.- Enpresetan eta norbere kabuz egindako jarduerak.
- 15.- Kargu akademikoak eta erakunde mailakoak.
- 16.- Irakaskuntza edo ikerketa arloko beste merezimendu batzuk.
- 17.- Beste merezimendu batzuk.

VIII. ERANSKINA

EUSKARA

EUSKARAREN JAKITE MAILA

C2 ETA C1 MAILAK

11 puntu.

- Itzulpengintza eta Interpretazioko Lizentzia, euskara A hizkuntzatzat hartuta.
- Euskal Filologiako Lizentzia.
- Itzulpengintza eta Interpretazioko Gradua, euskara A hizkuntzatzat hartuta.
- Euskal Ikasketen gradua edo Euskal Filologiako gradua.
- Doktore titulua (Tesia euskaraz idaztea eta defendatzea).
- Osakidetzaren 4. hizkuntza eskakizuna.
- HAE Eren 4. hizkuntza eskakizuna.
- HAB Eren 4. mailaren ziurtagiria (Kultura Saila).
- Irakasleen Unibertsitate Eskola euskaraz.
- Gaitasun agiria.
- UPV/EHU n eskolak euskaraz emateko agiria.
- Euskararen Gaitasun Agiria (EGA), Iparralde Euskararen Erakunde Publikoak-Office Public de la Langue Basque-rena.
- Euskaltzaindiaren D agiria.
- Euskararen Gaitasun Agiria (EGA), Nafarroako Gobernuako Hezkuntza Sailarena.
- C1 Gaitasun Maila, EAEko hizkuntza eskola ofizialetakoa.
- Hizkuntza eskola ofizialetako Gaitasun Maila edo 5. maila.
- Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren 2. hizkuntza eskakizuna.
- Euskararen Gaitasun Agiria (EGA), Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailarena.
- Ertzaintzaren 2. hizkuntza eskakizuna.
- Osakidetzaren 3. hizkuntza eskakizuna.
- HAE Eren 3. hizkuntza eskakizuna.
- HAB Eren 3. mailaren ziurtagiria (Kultura Saila)

HABEren 12. maila	8,25 puntu.
HABEren 11. maila	7,70 puntu.
HABEren 10. maila:	7,15 puntu.
B2 MAILA	6,60 puntu.

- Hizkuntza eskola ofizialen Maila Aurreratua.
- Hizkuntza eskola ofizialen euskarako laugarren maila (Ikasketa Plan Zaharra).
- Hezkuntzako Langileen Euskara Agiria (HLEA), Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailarena.
- Hezkuntza, Unibertsitate, Ikerketa Sailaren irakasle lanpostuen 1. hizkuntza eskakizuna.
- Ertzaintzaren 1. hizkuntza eskakizuna.
- Osakidetzaren 2. hizkuntza eskakizuna.
- HAEEn 2. hizkuntza eskakizuna.
- HABEren 2. mailaren ziurtagiria (Kultura Saila)

HABEren 9. maila:	6,05 puntu.
HABEren 8. maila:	4,95 puntu.
B1 MAILA	4,40 puntu.

- Hizkuntza eskola ofizialen oinarrizko maila.
- Hizkuntza eskola ofizialen tarteko maila.
- Hizkuntza eskola ofizialen euskarako hirugarren maila (Ikasketa Plan Zaharra).
- Osakidetzaren 1. hizkuntza eskakizuna.
- HAEEn 1. hizkuntza eskakizuna.
- HABEren 1. mailaren ziurtagiria (Kultura Saila).

HABEren 7. maila:	3,85 puntu.
HABEren 6. maila:	3,30 puntu.
HABEren 5. maila:	2,75 puntu.
HABEren 4. maila:	2,20 puntu.

2016ko apirilaren 15a, ostirala

HIZKUNTZA ESKOLA OFIZIALEKO 2. MAILA	2,20 puntu.
HABEren 3. maila:	1,65 puntu.
HABEren 2. maila:	1,10 puntu.
HIZKUNTZA ESKOLA OFIZIALEKO 1. MAILA	2,20 puntu.
HABEren 1. maila:	0,55 puntu.

IX. ERANSKINA

IKERTZAILEAK HAUTATZEKO IRIZPIDE OROKORRAK ETA ZEHATZAK

Epaimahaiak kontuan hartu beharko ditu honako irizpide orokor hauek:

1.- Epaimahaian parte ez hartzeko eta epaimahaikideak errefusatzeko arrazoiak behin onartuta, epaimahaikideek ezin izango dute lehiakiderik utzi balioetsi eta kalifikatu gabe.

2.- Proba edo fase bakoitzaren balorazioa eta kalifikazio aritmetikoa lortzeko, epaimahaikide bakoitzak emandako puntuazioen batez besteko aritmetikoa egingo da.

Lehiaketako probak baztertzailerak izango dira, eta bakoitza gainditzeko gehieneko puntuazioaren erdia lortu beharko da.

Epaimahaiak ezin izango du eskatu fase bakoitzean ezarritako gehieneko puntuazioaren erdia baino gehiago ateratzea, prozesua gainditzeko eta plazarako proposatua izateko. Amaierako nota probetan lortutako noten batura izango da, eta horri 15. artikuluan aurreikusitako merezimenduetan, halakorik bada, lortutako puntuak batuko zaizkio.

3.- Lehenengo proban edo fasean, lehiakideak irakaskuntzaren eta ikerketaren arloan eta, horrelakorik izanez gero, lan arloan egindako ibilbidea eta lortutako merituak aurkeztu, eta epaimahaiarekin batera aztertuko ditu. Proba horretan, 50 puntu lor daitezke, gehienez ere, eta bigarren fasera igarotzeko, 25 puntu lortu beharko dira, gutxienez.

4.- Bigarren fasean edo proban, lehiakideak bere irakaskuntza programa eta ikerketa proiektua(k) aurkeztu, eta epaimahaiarekin batera aztertuko ditu. Proba horretan, 25 puntu lor daitezke, gehienez ere, eta 3. fasera igarotzeko 12,50 puntu lortu beharko dira, gutxienez.

5.- Hirugarren proban, plazari dagokion zientziaren arloan egindako jatorrizko ikerlan bat aurkeztu eta aztertuko du lehiakideak. Proba horretan, 25 puntu lortu ahal izango dira, gehienez ere, eta gainditzeko 12,50 puntu lortu beharko dira, gutxienez.

6.- Epaimahaiak plaza betetzeko proposamena egingo du, hiru probetan lortutako puntuazioaren batez bestekoan lortutako emaitzaren arabera ordenatuta, puntuaziorik handienetik txikienera.

Berdinketa egonez gero, 1., 2. eta 3. proban, hurrenkera horretan, puntuazio onena lortutako lehiakidea proposatuko da.

7.- Epaimahaiak baloratu egin behar ditu abuztuaren 28ko 1086/1989 Errege Dekretuaren, urriaren 17ko 209/2006 Dekretuaren eta martxoaren 4ko 41/2008 Dekretuaren babesean aitortutako ikerketa eta irakaskuntza aldiak.

8.- Epaimahaiak irizpide espezifiko guztiak haztatu beharko dituzte, kontuan izanda zer lotura duten eskatutako irakaskuntza edo ikerketa lerroarekin edo plazaren ezaugarriekin.

Epaimahaiak lehen fasean aintzat hartu beharreko irizpide espezifikoak (ez dira nahitaezkoak eta ez dute puntuazio zehatzik):

Ikerketa jarduerak

Ikerketaren emaitzen kalitatea eta zabalkundea.– Zientziaren arloko argitalpenak, sorkuntza artistiko profesionalak, biltzarrak, hitzaldiak, mintegiak eta abar.
Ikerketa proiektuen eta kontratuen kalitatea eta kopurua.

Emaitzen transferentziaren kalitatea:– Patenteak eta jabetza intelektualen erregistroa, ezagutzaren transferentzia produkzio sektorera, etab.
Irakasleen mugikortasuna.– Egonaldiak ikerketa zentroetan, etab.

Beste merezimendu batzuk.

Azalpenen argitasuna aurkezpenean eta epaimahaiarekiko elkarrizketan.

Abuztuaren 28ko 1086/1989 Errege Dekretuan, urriaren 17ko 209/2006 Dekretuan eta martxoaren 4ko 41/2008 Dekretuan aurreikusitakoaren arabera aitortutako ikerketaaldiak.

Irakaskuntzako edo lan arloko jarduerak.

Irakaskuntza.– Noiztik noiz artekoa, doktorego tesien zuzendaritza.

Enpreetan, erakundeetan, ikerketako erakunde publikoetan edo ospitaletan izandako jarduera profesionalen kalitatea eta jarduera horietan emandako denbora (irakaskuntza eta ikerketaren arlokoak ez diren jarduerak). – Arduraldia, jardueraren ebaluazio positiboa, eta abar.

Azalpenen argitasuna aurkezpenean eta epaimahaiarekiko elkarrizketan.

Lehiaketako 2. eta 3. faseetan, eztabaidan azalpenak emateko argitasuna, eta ikerketa proiektuaren originaltasuna balioetsiko dira.